

ZER DA BIZITZA AMETSIK GABE?



Koldo gau askotan esnatzen zen izerdi patsetan ametsaren erdi erdian, ur piskat edan eta berriro hartzen zuen lo. Bere bizitza markatzen zuen errutina modukoa zen hura.

Koldo 12 urteko mutikoa zen. Azpeitian jaioa. Bere ezaugarri fisikoak errebasatzen hasita, zer nabarmendu? ez zen ez altua, ez baxua; ez zen ez gizena, ez argala; azal kolore goxoa: ez iluna, ez zuria; ile kolore ez iluna, ez argia; begiak marroi kolorekoak, ez handiak ez txikiak; hortz txuri politak.

Koldoren izaera ez zen arrunta, nire begietara pertsona oso zen berezia: jakin min ez ohikoa zuen; bere inguruan mugitzen edo agertzen zen gauza askoren nondik-norakoa jakin nahi izaten zuen, gauza eta gertaera guztien esplikazio logiko eta ilogiko guztiak ulertzen saiatzen zen: klaseko andereñoak zergatik jantzi du gaur gona gorria? zergatik egoten gara batzuetan triste eta beste batzuetan alai nahiz eta ez bizi izan gertaera berezirik?

Nere barnean, Koldo berak sortzen zidan jakin mina, berak izaten zituen burutazioak. Ziur zegoen ilargiaren aurpegiak esanahi berezia zuela gizakiontzat eta hori ikertu nahi zuen buru-belarri. Ni Eguzkiñe, bere lagunik onena, bere inguruan izaten nintzen beti.

Ilargia aztertzeke aste santuetako oporretan kanpaleku bat eraiki genuen nire baserritik gertu. Nolakoa ote kanpalekua? benetan bitxia: gurasoen aspaldiko autoaren gainean kanpin denda zaharkitu bezain eroso bat zegoen. Koldoren osabak oparitutako teleskopio handi bat ere bagenuen bertan. Orduak eta orduak igarotzen genituen tramankulutik ilargira begira. Izarrek osatutako hainbat konstelazio ezagunak genituen, hala nola: Hartz-eme nagusia, Hartz-eme txikia, Andromeda, Ureko Ahuntz... Zeruko astroak benetan maiteak genituen: Koldo ilargiarekin identifikatzen zen eta ni, berriz, eguzkiarekin.

Oporretako azken egunean horrela esan zidan Koldok:

- Eguzkiñe, ulertu dut ilargiaren mezua: Ilargiak eguzkiaren argia behar du.
- Zer esan nahi duzu horrekin? - galdetu nion nik harri eta zur-
- Zenbait pertsonak ditugun trebeziak azaleratzeko beste pertsona baten argitasuna behar izaten dugula. Horretaz konturatu naiz zurekin. Ez al da ederra misterioa?

Azken egun haietan Koldok ez zuen amets gaiztorik izan. Ez al da bizitza amesten dugun hori lortzea?